



HIDROZELEKTOMIA Zaintza eta Gomendioak

Zertan datza ebakuntza hau?

Ebakuntza hau eskrotoan (barrabil-zorroan) ebaki bat egitean datza, zorro horretan pilatu den likidoa kentzeko.

Beharrezko anestesia mota anestesistak adierazitakoa izango da.

Nola prestatu behar dut neure burua?

Ebakuntza egin aurretik, baraurik egon behar zara, 8-10 orduz.

Alergiarik edo koagulazioaren asaldadurarik izanez gero, jakinaz iezaguzu; garrantzitsua da.

Zer egin behar dut ebakuntza egin ondoren?

- ❖ EZ gidatu, ahal izanez gero, ebakuntza egin ondoren.
- ❖ Afari arina egin (jogurta, natillak, salda, flana, purea,...). Botaka egiten baduzu, ez hartu ezer, hurrengo goizera arte.
- ❖ Temperatura hartu gauean eta goizean, ebakuntzaren ondorengo 4 egunetan.
- ❖ Ez dutxatu 24 ordu pasa arte. Zauria garbi eta lehor eduki.
- ❖ Minik izanez gero, Nolotil® edo paracetamola har dezakezu, 6 edo 8 orduan behin.
- ❖ Etxean atsedean hartu behar duzu ebakuntzaren ondorengo 2 egunetan, baina ez erabatekoa.
- ❖ Ez egin ahalegin edo ariketa bortitzik, ez eta kirolik ere, 2 egunetan.
- ❖ Barrabila handitu egin daiteke.
- ❖ Esekitzaila edo galtzontzilo estua eramango duzu aste batean.
- ❖ 48 orduan behin zure osasun-zentrora joango zara, sendaketa egitera.
- ❖ Jostura-puntuak berez eroriko dira.

HONELAKORIK BADUZU:

- +38°ko sukarra baduzu.
- Mina baduzu eta aringarriekin kentzen ez bada.
- Zauria oso handituta baduzu.
- Odola darizula bazaude edo apositu osoa odoletan baduzu.

Familia-medikuarengana edo larrialdietara jo

Berrikusia: 2018ko martxoa

Informazio gehiago nahi izanez gero, lasai galdetu zutaz arduratzen diren profesionalei.

I.O.-UROLOGIA-07